



EBAZPENA, Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiarena, Lehendakaritzaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen 2026ko martxoaren 26ko Ebazpena aldatzen duena.

Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiaren 2026ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez, Lehendakaritzaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Kanpoan den Euskal Komunitatearen Zuzendaritzak, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkaritza nagusiaren menpe dagoena, aipatu planean aurreikusita ez daude bi dirulaguntza lerro berri sustatu nahi ditu 2026.ekitaldian: argitalpen-proiektuak eta ikus-entzunezko proiektuak eta proiektu berritzaileak.

Horrenbestez, ebazpen honen xedea da Lehendakaritzaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, egin nahi diren dirulaguntzen deialdiak eta indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aurreikusitakoa bat etor daitezen.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehendakaritzaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiaren 2026ko martxoaren 26ko ebazpena aldatzea, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkaritza nagusiaren dirulaguntza lerroak eguneratzeko.

Bigarrena.– Ebazpen honen eranskinean sartzea Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzaren 1.9 (Argitalpen-proiektuak eta ikus-entzunezko proiektuak) eta 1.10 (Proiektu berritzaileak) laguntza-lerroak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau argitara dadila agintzea, dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, betiere, Lehendakaritzari dagokion gunean, www.euskadi.eus webgunean.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean,

Mikel Iriondo Bilbao
Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusia

ERANSKINA

1.9.– Argitalpen-proiektuak eta ikus-entzunezko proiektuak
AURREKONTUA: 26.01.1311.23 452 26/1004; 4. kapitulua; 2026: 70.000 € FINANTZAKETA: % 100 Eusko Jaurlaritza
<p>Araua: Euskal Diasporaren eremuko argitalpen-proiektuetarako eta ikus-entzunezko proiektuetarako 2026ko deialdia egiteko eta oinarri arautzaileak ezartzeko ebazpena.</p> <p>Helburua: Dirulaguntzen programa honen helburua da euskal diasporaren eremuan argitalpen eta ikus-entzunezko proiektuen garapena sustatzea, Kanpoko Euskal Komunitatearen eremuan kultura-ikusgarritasuna eta sorkuntza sustatzeko.</p> <p>Adierazlea: Aukeratutako proiektuen kopurua: 10</p> <p>Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.</p> <p>Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkaritza nagusia/ Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.</p> <p>Helburu duen sektorea: kultura-sektoreko enpresak, helburu nagusia kulturala duten elkarteak, Euskal Etxeak eta kanpoan den euskal diasporari/euskal komunitateari lotutako pertsona fisiko edo juridikoak. Horiek guztiek identifikazio fiskala dute, eta Euskadikoak zein kanpokoak dira.</p>

1.10.– Proiektu berritzaileak
AURREKONTUA: 26.01.1311.23 452 26/1014; 4. kapitulua; 2026: 70.000 € FINANTZAKETA: % 100 Eusko Jaurlaritza
<p>Araua: Ebazpena, Euskal Etxeetan, Euskal Etxeen Federazioetan eta Konfederazioetan Proiektu Berritzaileak egiteko 2026ko edizioaren deialdia egin eta horretarako oinarri arautzaileak ezartzen dituena.</p> <p>Helburua: Ebazpen honetan jasotako laguntzak proiektu berritzaileak osorik edo partzialki finantzatzeko dira. Proiektu horiek Euskal Etxeetan nagusi izan den bilera-inguruaren kontzeptu tradizionala gainditzen laguntzen dute, teknologiaren, iraunkortasunaren eta inklusioaren nodo aktibo bihurtzeko.</p> <p>Adierazlea: Aukeratutako proiektu kopurua: 10</p> <p>Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.</p> <p>Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkaritza nagusia/ Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza</p> <p>Helburu duen sektorea: Euskal Etxeak, Euskal Etxeen Federazioak eta Konfederazioak.</p>